



## ERREGELAMENDUA, ADINGABEKOAK BEREN ARDURAPEAN DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK ARAUTZEKO

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala.

**Onartuta:** Udalbatzak 2011/02/28an

**Argitaratuta:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean: 2011/06/28an

### AURKIBIDEA:

1.- Xedea .....	2
2.- Onuradunak.....	2
3.- Laguntza-motak.....	2
4.- Prozedura.....	3
5.- Bestelako zehaztapenak.....	4
6.- Onuradunen betebeharrak.....	4
7.- Diru-laguntzak aldatzea eta berritzea.....	4
8.- Dirulaguntzak berrikustea .....	4
9.- Erregelamendua interpretatzea eta garatzea .....	4
Lehen xedapen gehigarria .....	4
Azken xedapena .....	5

# ERREGELAMENDUA, ADINGABEKOAK BEREN ARDURAPEAN DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK ARAUTZEKO

## 1.- Xedea

Erregelamendu honen xedea da adingabeak beren ardurapean dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzea.

Laguntza hauek adingabeak beren ardurapean dituzten familientzat dira, eta banakako izaera dute.

Diru-laguntza edo zerbitzu gisa eskainiko dira, eta honako helburu hau dute: adingabekoen gizartearekiko marjinazioari aurrea hartu eta haiek birgizarteratzea lortzea.

## 2.- Onuradunak

Laguntzen onuradun izateko, honako baldintza hauek guztiak bete beharko dira:

- 1-1) Familia eskatzailea egoera sozioekonomiko larrian egotea.
- 1-2) Familian, 18 urtetik beheragoko kideak izatea.
- 1-3) Bergaran bizi izatea eta laguntza eskatu aurreko azken 6 hilabeteetan gutxienez Bergarako udalerrian erroldatuta egotea.
- 1-4-) Gizarte Zerbitzuek adingabekoen babesgabetasun-egoerak ekiditeko garatzen duen esku-hartzearen barruan egon behar du familia eskatzaileak; esku-hartzea edozein fasetan egonda ere (balorazioa, interbentzioa edota jarraipena).

Hala ere, Udal Gizarte Teknikariak honela proposatuz gero, onuradun izateko dauden baldintzetako edozein kontuan ez hartzea posible izango da. Era berean, nahiz eta baldintza guztiak bete, posible izango da diru-laguntza ukatzea. Kasu guztietan, Gizarte Teknikariak arrazoitutako proposamena aurkeztu eta Alkateak (edo hark eskuordetutako organoak) erabakiko du.

## 3.- Laguntza-motak

Hona hemen eman ahal izango diren laguntza-motak:

3.1.- Haurtzaindegi edo ikastetxeetara joateko laguntzak, gizarte edo famili egoerak hala eskatzen duenean.

3.2.- Eskola-jangelarako, eskola-materialerako eta haurren udalekuetarako laguntzak, gizarte edo familia egoerak hala eskatzen duenean.

3.3.- Laguntza bereziak; bestelako edozein laguntza, betiere Udaleko Gizarte Teknikari eta Enplegu eta Gizarte Ongizate Batzordearen iritziz adingabekoentzat premia larriko egoerak daudenean.

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu berarengatik jasotako beste edozein diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edota errekursorekin. Hala ere, ez diru-laguntza bera bakarrik, eta ezta beste diru-sarrerekin batuta ere, ezin izango da izan, inoiz ere ez, lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

---

BERGARAKO UDALA.

Erregelamendua, adingabeak beren ardurapean dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzeko

## 4.- Prozedura

4.1.- Eskaria Bergarako Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko da, honako dokumentazioarekin batera:

- Eskatzailearen NAN.
- Familia-unitateko kide guztien NAN edo, halakorik ezean, familia-liburua.
- Eskatutako laguntzen aurrekontua.
- Familiaren baliabide ekonomiko guztien ziurtagiria.
- Zinpeko aitortpena, beste edozein erakunde edo organismori eskatutako diru-laguntzen gainekoa eta helburu berarengatik jadanik jasotako diru-laguntzen gainekoa.
- Zinpeko aitortpena, diru-laguntza jaso ezin izateko kasuetako batean ere ez egoteari buruzkoa, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. eta 3. ataletan adierazitakoari jarraituz .
- Kontu korronteko zenbakia.

Eskaerak behar bezala aurkeztuko ez balira, edo eskatutako agiriren bat faltako balitz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eskatzaileari errekeritu egingo zaio hamar egun balioduneko epean akats horiek zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; eta era berean jakinaraziko zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta espedientea beste izapiderik gabe artxibatuko dela, aipatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 42. artikuluan aurreikusten dituen ondorioak izango dituelarik.

Beharrezkotzat jotako kasuetan, eskatzaileari prozeduran zehar edozein unetan errekeritu ahal izango zaio eskaera erabaki ahal izateko egoki iritzitako beste edozein dokumentazio osagarri aurkez dezan, edo beste edozein betebeharrak edo izapide bete dezan —azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 76. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz—. Horretarako, hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eta espresuki ohartaraziko zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aurreko errokatian esandako hitz eta eduki berberaz.

Eskaera aurkezteak berak esan nahi du eskatzaileak Udalari baimena ematen diola eskatzaileari buruzko datuak egiaztatzeko edo lortzeko dagozkion gestioak egin ahal izateko. Datu horiek bakar-bakarrik erabiliko dira eskatzaileak erregelamendu honetan zehaztutako betebeharrak betetzen dituen edo ez egiaztatzeko. Eskaera aurkezteak, halaber, esan nahiko du eskatzaileak oso-osorik onartzen duela erregelamendu honetan zehaztutakoa.

Datuak ezkutatu eta/edo faltsutuz gero, horrek eskaera artxibatzea ekarriko du, egotz dakizkiekeen erantzukizunak ere baztertu gabe.

4.2.- Eskaera aurkeztu ondoren, Gizarte Teknikariak egiaztatu egingo du bete beharreko baldintzak betetzen dituela, hala badagokio, eta txosten bat egingo du familiaren egoera sozioekonomikoa, laguntzaren helburua, eta abar azaltzeko.

4.3.- Ondoren, Udaleko Enplegu eta Ongizateko Batzordean aztertuko da eskaria, eta baiezkoa edo ezezkoa ematea Alkateak erabakiko du —edo hark eskuordetutako organoak—. Eskatzaileak eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean ez bazaio inolako erabakirik jakinarazi, eskariari ezezkoa eman zaiola ulertu ahal izango du.

4.4.- Eskariaren alde erabakiz gero, dagokion diru-kopurua eskatzaileari ordainduko zaio, betiere gastua benetan egin dela edo egingo dela egiaztatu ondoren.

---

BERGARAKO UDALA.

Erregelamendua, adingabekoak beren ardurapean dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzeko

## **5.- Bestelako zehaztapenak.**

5.1.- Familiaren baliabide ekonomikoak neurtzeko, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLLak) emateko zehaztuta dauden irizpideak erabiliko dira.

Era honetan, familiak GLLak jasotzeko eskubidea baldin badauka, egoera ekonomiko larrian dagoela ulertuko da.

5.2.- Laguntza-eskaria sortarazi duen ekintza, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Teknikarien eta familia-kideen artean era bateratuan adostu ondoren, familiaren eta elkarbizitzaren programaren barruan abian dagoen Familia Tratamendurako prozesuaren ekintza gisa hartzen bada, posible izango da eskatzailearen baliabide ekonomikoak kontuan ez hartzea, betiere Gizarte Teknikariek egindako txostenean horrela zehazten badute eta Alkateak (edo hark eskuordetutako organoak) onartzen badu.

5.3.- Laguntzen onarpena udalak gai honetarako onartutako aurrekontu-partidaren menpe egongo da.

## **6.- Onuradunen betebeharrak**

Laguntza-hartzaileak honako betebeharrak izango ditu, erregelamendu honetako beste puntu batzuetan jasotako betebeharrak gain:

- a) Udalak egingo dituen egiaztatze-ekintzei men egitea.
- b) Helburu berbera duen beste diru-laguntzaren bat jasoz gero, Udalari jakinaraztea. Horren berri jakin bezain laster egin beharko da jakinarazpen hori.
- c) Udalak egin beharreko egiaztatze-ekintzen aurrean trabarik ez jartzea.
- d) Dagokien kasuetan, diru-laguntza itzultzea.

## **7.- Diru-laguntzak aldatzea eta berritzea**

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzak aldatzen badira, eta betiere bestelako erakunde publiko zein pribaturen batek helburu bera duen beste diru-laguntzaren bat ematen badu, horrek diru-laguntza emateko hartu izandako erabakia aldatzea ekar dezake.

## **8.- Dirulaguntzak berrikustea**

Hona hemen diru-laguntzak berrikusteko eta, hala egokituz gero, ezeztatzeko edo jasotakoak itzultzeko arrazoiak:

- a) Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete gabe jaso izana.
- b) Diru-laguntzaren helburua, osotasunean edo partzialki, ez betetzea.
- c) Diru-laguntzari eman zaion erabilera zurrizko derrigortasuna ez betetzea edo behar den bezala ez betetzea.
- d) Finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko jarduerak oztopatzea, edo ezetza ematea, edo aurka egitea. Eta horren ondorioz, honako egiaztatze-ekintzak eragozteak: emandako diru-laguntza zertan erabili den, helburua bete ote den, edo helburu bera duten bestelako diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik dagoen.

## **9.- Erregelamendua interpretatzea eta garatzea**

Alkateari ahalmena ematen zaio erregelamendu hau aplikatzeko eta garatzeko behar besteko arauak xeda ditzan, eta interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak argitu eta erabaki ditzan.

## **Lehen xedapen gehigarria**

Araudi honetan espresuki zehaztuta ez dagoenean, une bakoitzean indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko legedia aplikatuko da; gaur egun, azaroaren 17ko 38/2003 legea eta berau garatzen duten gainontzeko araudiak.

---

BERGARAKO UDALA.

Erregelamendua, adingabekoak beren ardurapean dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzeko

## **Azken xedapena**

Indargabetuta geratzen dira maila bereko edo beheragoko arauak, Erregelamendu honekin bat ez datozen heinean, eta berariaz honako hau: Adin txikikoak beren ardurapean dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen araudia, 1995eko azaroaren 27an onartua (1995eko abenduaren 14an GAOn argitaratua), eta 1996ko urriaren 14an aldatua (1996ko azaroaren 7an GAOn argitaratua).